



Arartekoaren 2014R-2113-14 ebazpena, 2014ko azaroaren 24koa. Horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio XXX gaztearen eskolatzeari berriz aztertzei eta Bilboko Martín de Bertendona Bigarren Hezkuntzako Institutuan A ereduko derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasle gisa onartzea baimentzeko.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan XXX gaztearen kexa bat jaso da. Gazte honek A ereduari derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak egiteko interesa du.

Kexan azaltzen denaren arabera:

Yo, XXX deseo comentar mi caso de desacuerdo con una matrícula. El año pasado estuve matriculada en 3ºEso en Albacete y finalicé el curso. Este verano tuve que mudarme y venir a un pueblo de la provincia de Guipúzcoa (Eibar), fui al gobierno Vasco a que me asignaran un centro con modelo A (en castellano) ya que no sé absolutamente nada de Euskera y me aseguraron que me intentarían encontrar un centro de castellano y en el caso de que no hubiera en la provincia donde habito, tendría que ir a Bilbao todos los días (cosa que no me importaría y puedo pagarme los viajes), también me dijeron que en septiembre me llamarían para decirme el centro donde me han asignado y efectivamente me llamaron, pero para decirme que la comisión de escolarización me ha mandado al pueblo donde vivo y que es modelo D (en Euskera), no estaba de acuerdo, así que volví al gobierno Vasco para presentar todas las alegaciones que fueran posibles y me dieron una lista de Institutos donde se da modelo A, en Bilbao. Fui a uno de esos centros que hay más plazas (Martín de Bertendona), ahí solicité un traslado y el instituto no tenía ningún inconveniente. Más tarde me mandaron un sms en el que me pusieron que me habían denegado, como no encendía el porqué, volví a ir al gobierno vasco y me dijeron que para un traslado de matrícula tendría que haber un motivo (supongo que el hecho de que no sepa un idioma no sea suficiente) así que me dijeron que a no ser que me cambie de domicilio (a Bizkaia) no podría estudiar allí. Una chica conocida que habita en el mismo pueblo que yo, me explicó que ella tuvo un problema parecido, pero que en su caso no tuvo ningún problema en el traslado de Eibar a Bilbao. He perdido dos meses de curso y sólo quiero estudiar en un centro donde me vea capacitada para aprobar, ya que



en un centro donde se da un idioma que no sé soy incapaz, espero que puedan encontrar una solución.

2. Kexa izapidetzea onartu ondoren, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunei laguntzeko eskatu zaie, kexagileak azaldukoak egiaztatzeko, bai eta arduradun horiek interesdunaren asmoei buruz zer iritzi arazoitu duten jakiteko ere.

Gure eskaerari erantzuteko, hezkuntza arloko arduradunek erantzun-txosten bat igorri diote erakunde honi, non hau erantzun diguten:

Arartekoak eskatu du txosten bat, XXX gaztearen kexa bati dagokionez, derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakaskuntzak egin nahi baititu A ereduan (erreferentzia: 2113/2014/QC), eta horretaz zera jakinarazten da:

16 urteko neska da, 1998ko uztailaren 3an jaioa, Albacetetik zetorrela Eibarren erroldatu zena eta DBHko 4.erako eskola-postua Gipuzkoako eskolatze batzordeari eskatu ziona; talde arduradun horrek postua esleitu zion 2014ko uztailaren 23ko bileran, Eibarko Itzio BHIIn, D ereduan.

Interesdunaren historia akademikoa aztertu ostean, berretsi egin zen beraren matrikula DBHko 3.ean.

Eibarko Itzio BHIk behar adina aurretiko ibilbide eta giza baliabide zein baliabide material dauzka berekin, hizkuntza errefortzukoak ere barne, sartu berri diren ikasleak hartzeko xedez.

Ez dago interesdunak Gipuzkoako eskolatze batzordearen aurrean egindako alegaziorik.

Aipatu esleipena egin ondoren, 2014ko irailaren 9an, interesdunak eskatu zuen Bilboko Martín de Bertendona BHIra joatea, A ereduan, hizkuntz ereduz aldatu nahi zuela adieraziz. Bizkaiko lurralde ordezkariak ukatu egin zuen eskabidea, irizpide orokorrak oinarri harturik, urtero otsailean irekitzen den ohiko eskabide epetik kanpo aurkeztu diren lekualdatze eskabideetarako erabilitakoak: ez zegoen bat-batean gertatutako zirkunstantziarik (bizilekuz aldatzea, esaterako) Gipuzkoako eskolatze batzordeak kontuan edukitakoak ez bezalakorik.

Ukapenaren ostean, interesdunak aurkeztu zuen beste lekualdatze eskabide bat 2014ko urriaren 9an, IES Itzio BHItik (D eredua) Martín de Bertendona BHIra (A eredua), zio frogagarritzat harturik bizilekuz aldatu izana, Eibartik



Ermura. Bigarren eskabide hori aztertu eta gero, ukatzea erabaki zen berriro, eta hona hemen arrazoiak:

- *Ermua hirian erroldatzea irregulartzat jotzen da; izan ere, adingabea ez da bizi ez gurasoekin, ez tutore legal batekin, eta gainera ez du aurkeztu emantzipatu izanaren egiaztagiririk.*
- *Bizilekua Eibartik Ermura aldatzeak ez darama berekin 4 km baino gehiagora joatea; gainera, eskatutako ikastetxe berria urrunago dago bizileku berritik gaur egun matrikulatua dagoeneko baino, hots, aipatu Itzio BHI baino.*
- *Oro har, ohiko epetik kanpo bat-batean gertatutako zio urgente eta erabat luzaezinengatik egiten diren ikastetxe aldaketek ez daramate berekin hizkuntz ereduz aldatzea.*

Horren ondorioz, interesduna, 16 urtekoa, araudiaren arabera matrikulatua dago Eibarko Itzio BHI, D ereduan. Hala ere, datorren 2015-16 ikasturtean ikasketan jarraitu nahi balu, ohiko epean aukera izango luke eskola-postua eskatzeko EAEko edozein ikastetxetan, hautatutako hizkuntz ereduan edo ereduetan, eta onartua izateko egon daitekeen muga bakar-bakarra postu libreak egotea izango litzateke.

Eskolatzeko lurralde batzordeek eskainitako banan-banako erantzunak ongi balioesteko xedez, nahitaezkoa da aintzat hartzea ikasturtea hasi ondoren sartzen diren ikasleen kopuru handia, eta gertaera horrexek behartzen gaitu etorri berri diren lagunen eskubideak elkartzera, babestu egin behar baita egonkortasuna ikasgeletan eta ikastetxeetan, hori guztia hezkuntza plangintza ordenatu baten esparruan barruan.

Azken gai horri dagokionez, hezkuntza arloko arduradunek hau gehitu nahi izan dute:

Hori horrela, argitzeko asmoz, nabarmendu egin daiteke 2014-15 ikasturtean, urriaren 31rako, EAEko gelek 2.200 ikasle berritik gora hartuak zituztela aldez aurreko matrikularik gabe gure erkidegoan eta beste leku batzuetatik hona etorriak.

Are zehatzago, 2013-14 ikasturtea amaitu ondoren eskolatu egin dira Eibar udalerrian beste 58 ikasle aldez aurretiko matrikularik izan gabe EAEn (20 Haur Hezkuntzan, 24 Lehen Hezkuntzan eta 14 DBHn), eta haietariko zortzik eman dute izena gorago aipatua dagoen Itzio BHI.



Ezohiko giza baliabide globalak, 2014-15 ikasturte honetan ikastetxe publikoei esleitu zaizkienak hain zuzen, gure hezkuntza sisteman 2013ko urtarrilaren 1az geroztik sartutako ikasleen hizkuntz errefortzurako, iristen dira 184 irakasleko kopurura lanaldi osoan, eta banatuak daude guztiak 250 ikastetxeren artean. Itzio BHIko hornikuntza zehatza da aipatu zeregin horretarako irakasle 1 lanaldi osoan.

Gehigarri gisa, badago urteko deialdi bat itunpeko ikastetxeei laguntzen diena, hizkuntz errefortzuko irakasleen kontratazioko kostuak estaltzeko xedez. Helburu horretarako ekonomi hornikuntza, 2014-15 ikasturterako, iristen da 1.518.000 eurora.

Gogoetak

1. Hezkuntza arloko arduradunek, erakunde honek egindako errekerimendua artatzean, gazte horren kasuari emandako tratamendua arrazoitu nahi izan dute, bi jarduketa bereiziz: lehen jarduketa Gipuzkoako eskolatzeko lurralde-batzordeari esleitu dio, ikasleak onartzeko urteko ohiko prozeduratik kanpo eskaerak ebazteko eskumena duen aldetik, eta kexaren sustatzaile interesdunak alegazioak ez aurkezteagatik baimendutzat jotzen dute; eta bigarren jarduketa ikastetxez aldatzeko edo lekualdatzeko eskaera baten erantzun gisa aurkeztu dute, hau ere ikasleak onartzeko urteko ohiko prozesutik kanpo planteatu zen, eta diotenez, bat-batean etorritako egoeraren bat gertatzen denean bete beharreko ohiko betekizunen arabera ebatzi dute.

Adierazi behar dugu hezkuntza arloko arduradunek bere jarduketa bereizketa hori eginez arrazoitzeko egin duten saiakera ulertzen dugula, baina gauza da kexan kexagile den interesdunak baimendutako lehen-eskolatze proposamen batean bitartekotza egin badute, geroago ikastetxez lekualdatzeko edo aldatzeko eskaera zenbait baldintzen eta/edo betekizunen mendean egon daiteke, esate baterako, interesdunak egindako eskaera bitan ukatzea eragin dutenak, bat-batean etxer aldatzeko behar den aurrekontua ez egiaztatzean.

Hala ere, erakunde honen ustez, planteamendu bera aztertzen ari garen kasura lekualdatzea baliteke horren baketsua ez izatea. Egia da gure esku-hartzeari erantzuteko egin den txostenean esan dela Gipuzkoako eskolatzeko lurralde-batzordeak eskola-postu bat esleitu ziola interesdunari 2014ko uztailaren 23an



egindako bilkuran, eta geroago berresten dela, interesdunaren alegaziorik ez izanda, 2014ko irailaren 9an, interesdunak Bilboko Martín de Bertendona Bigarren Hezkuntzako Institutuan onartzeko eskatu zuela. Interesdunaren kontakizunaren arabera, irailean jakin zuen Gipuzkoako eskolatzeko lurralde-batzordeak zer esleipen egin zuen, eta hain justu, orduan joan zen Eusko Jaurlaritzara ahal ziren alegazio guztiak aurkezteko. Une hartan, ikasketak A ereduan ematen dituzten ikastetxe guztien zerrenda bat eman zioten, eta horrexek eragin zuen Martín de Bertendona Bigarren Hezkuntzako Institutuan onartzeko eskaera aurkeztea.

Gure ikuspuntuaren arabera, interesdunaren azken bertsioa ikusita, erantzuteko txostenean defendatzen dena ez bezala, zaila da defendatzea kexako kexagilea Gipuzkoako eskolatzeko lurralde-batzordeak egindako lehen esleitzearekin konformatu zela. Izan ere, hezkuntza-administrazio horrek, erantzunean esandakoa gorabehera, ez du egiaztatu erabaki horren jakinarazpena eran egin zuenik, administrazio-prozedura arautzen duen legean xedatutako betekizunen arabera. Beraz, adierazitako erreklamazio- edo errekurso-epeak igarotzeak hasierako erabakira itzultzeko helburua duen ondoko edozein ekimen indargabetu dezake, nahi denaren arabera.

Zentzu horretan, gure ustez, ezerk ez digu oztopatzen kexan kexagile denak aurkeztutako idazkiak baloratzen hastea, Gipuzkoako eskolatzeko lurralde-batzordeak egindako esleipenari aurka egiteko egiazko idazkitzat hartuz eta ez ikastetxez aldatzeko edo lekualdatzeko eskaera hustzat. Hori dela eta, ez dugu aipatuko interesdunaren eskaerei emandako tratamendua, ikastetxez aldatzeko edo lekualdatzeko ikuspuntutik, zehazki Ermuan erroldatzearen irregularutasun posibleari, Bilbon dagoen ikastetxe berriaren eta familiaren etxearen arteko distantziari, hizkuntza-ereduaren aldaketari eta abarri dagokionean.

2. Aurreko guztia argitu ondoren, adierazi behar da hezkuntza arloko arduradunek, erakunde honen esku-hartzeari erantzuteko egin duten txostenean, azpimarratu eta adierazi nahi izan dutela hezkuntza-plangintza ordenatu bat ziurtatzeko beharra benetako muga bat izan daitekeela eta dela, eta era berean, ikasleak onartzeko ohiko epeetatik kanpo egindako onespene-skaera batzuk artatzeari uko egitea arrazoitu dezakeela, hezkuntza-plangintzan edo -programazioan egonkortasun hori arriskuan jar dezaketen neurrian. 2014-2015 ikasturtea hasi ondoren egindako eskaerei buruzko oso datu jakinak ere eman dituzte, eta ebazpen honen aurrekariaren bigarren atalean adierazi nahi izan ditugu.



Gai horri dagokionez, adierazi nahi dugu erakunde honetan ongi dakigula eskolatzeko lurralde-batzordeei hartzea dagozkien erabakiek izugarrizko garrantzia dutela, berandu hasten diren ikasleei dagokienez. Hori frogatzeko, Eusko Jaurlaritzari egiten dizkiogun urteko txostenetako azkenetan lurralde-batzorde horien lanari buruz egindako aipamenei helduko diogu. Aipamen horietan oso helburu garrantzitsuak lortzen laguntza ukaezina eman dutela, hala nola ikasleen banaketa orekatua egiten saiatzea.

Hala ere, aztertzen ari garen kasuari berriz helduz, gauza da oraingoan ez dugula aurkitu plangintzaren beharrekin lotutako elementu bakar bat ere, interesdunak egindako hautaketa aintzat ez hartzea justifika dezakeena. Izan ere, interesdunak hasieratik adierazi du Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman sartzeko eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak A ereduan jarraitzeko interesa.

Zentzu horretan eta hezkuntza-administrazioa berak emandako datuei erreparatuz, dirudienez, Gipuzkoako eskolatzeko lurralde-batzordeak egindako proposamenarekin bat ez datorren eskaera bakarra, DBH mailakoa, Eibar udalerrian, interesdunarena da. Bilboko Martín de Bertendona Bigarren Hezkuntzako Institutua gazte hori hartzeko prest egon da, oraindik plaza hutsak geratzen baitira, eta horrenbestez, ez litzateke aldatuko programatutako eskola-postuen hasierako kopurua. Hori dela eta, Bilboko Martín de Bertendona Bigarren Hezkuntzako Institutuan onartua izateko eskaera aintzat hartzeak ez luke ondorio handirik izango eta ez luke desoreka handirik eragingo berandu hasten diren ikasleen integrazio eraginkorraren alde egiteko hartzen diren neurrietan, hala nola aparteko giza baliabideekin lotutakoetan (Eibarko Itzio Bigarren Hezkuntzako Institutua jada hornitu da baliabide horiez, 2014-2015 ikasturtea hasita ikastetxe honetan eskolatutako ikasleen guztizkoa aintzat izanda). Horrez gainera, garrantzitsua da azpimarratzea kexan kexagilea den interesdunak badakiela Bilboko Martín de Bertendona Bigarren Hezkuntzako Institutura joateko erabakiak ez duela prestatzen zerbitzu osagarri mota bakar bat ere aitortzeko. Horrenbestez, ikuspuntu horretatik ere ez litzateke kaltetuko hezkuntza-administrazio horrek programatutako plangintza.

Gauzak horrela, 3/1985 Legearen, otsailaren 27koaren, Arartekoa sortu eta arautzen duenaren, 11.b) artikuluan agindutakoari jarraiki, hau aurkezten da:

ararteko



URTE AÑOS

GOMENDIOA

XXX gaztearen eskolatzea berriz aztertzeko, eta Bilboko Martín de Bertendona Bigarren Hezkuntzako Institutuan A ereduari derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasle gisa onartzeko.

